

KONTSUMO ARDURATSUAREN SUSTAPENA ORTUELLAKO ESKOLA AGENDA 2030AREN ESPARRUAN

Posted on 30/04/2026 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [2030 Agenda](#), [Kontsumo arduratsua](#), [Partaidetza prozesuak](#)

Apirilaren 30ean, Ortuellako Eskola Agenda 2030ren baitan, arrakasta handiz ospatu egin da **bigarren eskuko azoka** Otxartaga plazan, herriko ikastetxe ezberdinek parte hartu duten **prozesu parte-hartzaile** baten emaitza gisa. **Aurretik egindako hiru tailerretan** zehar, ikasleek elkarlanean aritu dira ekimen hau antolatzeko.

Saio horietan, **Ortuellako ikasleek** lantalde desberdinetan lan egin dute, azoka aurrera eramateko beharrezkoak ziren **zereginak euren artean banatuz**. Besteak beste, **herritarrek emandako materialak** —arropa, jostailuak, liburuak eta bestelako objektuak— jasotzea eta sailkatzea, prezioak adostea, diruaren kudeaketa egitea, eta postuen muntaketa zein desmuntaketa antolatzea izan dira landutako eginkizunak.

Azoka, herriko jaien hasierarekin batera ospatua, **arrakasta handia izan du**. Ikasleek arduraz eta antolaketa handiz prestatu dituzte euren mahaia, eta talde-lanerako gaitasun handia erakutsi dute. Gainera, **herritarren parte-hartzea nabarmena izan da**, jasotako material kopuru handiak bizia eman baitio **kontsumo arduratsuekin lotutako ekimen honi (12. GJH)**.

Egun honetan lortutako dirua **Agua de Coco** erakundera bideratuko da, **elkartasunari ekarpena** eginez; soberan geratutako arropa, berriz, **Koopera** erakundeari emango zaio **berrerabiltzeko**.

Amaitzeko, ekimena antolatzen aritu diren ikasleek merezitako hamaiketakoa izan dute, egindako lanaren aitortza gisa.

Esperientzia honek erakusten du **elkarlanean eta helburu komun batekin arituz gero, emaitzak oso positiboak izan daitezkeela**. Kontsumo arduratsua sustatzeaz gain, elkartasuna, konpromisoa eta parte-hartzea bezalako balioak indartzen dituen ekimena izan da.

BIGARREN ESKUKO AZOKA



APIRILAK 30



10:00 - 12:00
(10etatik 12ak arte)



OTXARTAGA PLAZAN


JOSTAILUAK



LIBURUAK



ARROPA



Anima zaitetzeko







